

Istorioz

betetakoko paseoa

Un paseo lleno de historias



IBILBIDE AUDIOGIDATUA RECORRIDO AUDIOGUIADO



BISITA GIDATUAK, AUDIOGIDATUAK
ETA "SALTOKA" JOKOA
VISITAS GUIADAS, AUDIOGUIADAS
Y JUEGO "SALTOKA"



URTE OSOAN
ZABALIK
ABIERTO
TODO EL AÑO



ERRESERBAK
RESERVAS



EUSKARA
CASTELLANO
ENGLISH
FRANÇAIS



OROGARRIAK
SOUVENIRS



TURISMO BULEGOA · OFICINA DE TURISMO

Kurutziaga, 38 · 48200 Durango | 94 603 39 38 | www.turismodurango.net | turismo@durango.eus


ORDUTEGIA · HORARIO

Egunero · Todos los días 10:00 - 14:30

Asteazkena, osteguna eta ostirala · Miércoles, jueves y viernes 10:00 - 14:30 / 16:00 - 18:30


Urtarrila, otsaila, azaroa eta abendua: astelehenak ibita · Enero, febrero, noviembre y diciembre: lunes cerrado

Larunbat eta igande arratsaldetan, museoa bakarrik zabalik · Sábados y domingos por la tarde sólo el museo 16:30 - 18:30



AIRE LIBREAN DAGOEN MUSEOA UN MUSEO AL AIRE LIBRE

1



Lariz Dorrea Lariz dorretxea hiri-jauregi errenazentista da, eraikuntzaren aldetik kalitate handikoa eta apaindura jorikoa. XV. mende bukaeran eraiki zuten. Esaten denez, 1483an Isabel erregina katolikoak dorre horretan hartu zuen ostatu. 2009an berriztatuta egin zuten.

Lariz Torre La casa-torre de Lariz se presenta como un palacio urbano renacentista de gran calidad constructiva y rica decoración. Se levantó a finales del siglo XV. Se cree que en esta torre pudo pernoctar Isabel la Católica en 1483. Fue restaurada en 2009.

2



Santa Anako arkua eta eliza Durangoko hiribildua inguratzen zuen harrisiko sei ateetatik gelditzen den bakarra da Santa Anako arkua, estilo barrokokoa. Bere ondoan, apaingarri gutxi duen arren, barrokoa den Santa Anako eliza dago.

Arco e Iglesia de Santa Ana El arco de Santa Ana, de estilo barroco, es el único testimonio de las seis puertas con las que contaba la antigua muralla que rodeaba en tiempos pasados la villa. La iglesia, aunque sobria y severa, es también de estilo barroco.

3



Udaletxea Durangoko udaletxea Bizkaiko zaharrenetarikoa da. Jatorrizko udaletxea XVI. mendearen eraiki zen. Kanpoaldeko margolanak dira eraikuntzaren adierazgarriak handienak, eta "La Comedie Française-n" dute oinarria.

Ayuntamiento Estamos ante uno de los ayuntamientos más antiguos de Bizkaia. La construcción original data del s. XVI. Las pinturas exteriores, inspiradas en "La Comedie Française", son lo más destacado del edificio.

4



Arte eta Historia Museoa Museo horrek dituen funts artistikoak askotarikoak dira: alde batetik, historikoki interesgarriak diren elementuak daude, eta bestetik, artelan modernokoak. Museoa, Etxezarreta jauregian dago, barrokokoa. Asteartetik igandera irekitzen da.

Museo de Arte e Historia de Durango Los fondos artísticos que conserva son muy variados, reconociéndose tanto elementos de interés histórico como obra artística moderna. El Museo tiene su sede en el Palacio Etxezarreta, un magnífico palacio barroco. Abre de martes a domingo.

San Agustín Kultur Gunea San Agustín Kultur Gunea antzoki bat da. Antzina San Agustingo komentua izandako eraikinean dago antzokia. Eraikin hori XVII. mendearen altxatu zuten agustindarrek.

San Agustín Kultur Gunea San Agustín Kultur Gunea es un teatro. Se sitúa en el que fuera antiguamente el Convento San Agustín, construido por los Agustinos en el siglo XVII.

5



Ezkurdi Plaza Musika kioskoak, zuhaitziak, iturriak eta eskulturek aisialdirako, paseorako eta elkartunetarako leku bilakatu dute. Bertan dago Fray Juan Zumarragaren oroigarria. Plazaren ondoan Zumalakarregi kaleko eraikin eder historizistak ikus ditzakegu.

Plaza Ezkurdi El quiosco de música, el arbolado, la fuente, las esculturas, nos evocan un lugar lúdico, de paseo y encuentro. Es también donde recordamos la figura de Fray Juan de Zumárraga. Junto a la plaza se encuentran los hermosos edificios historicistas de la calle Zumalakarregi.

6



Uribarriko Andra Maria Basilika XV. mende bukaeran dagoeneko deskribatu zuten Uribarriko Andra Mariaren basilika. Monumentu nazionalizat jo da, eta Euskal Herriko obrarik apartenetakoa da. Haren portiko ederra nabarmentzen da, Euskal Herriko handiena. Aipagarriak dira, Errege-erregina Katolikoaren estiloko korua eta aldare nagusiko erretaula erromanista.

Basilica de Santa María de Uribarri La Basílica de Santa María de Uribarri se describe ya a finales del siglo XV. Ostenta la categoría de Monumento Nacional y es una de las obras más monumentales del País Vasco. Destaca su bello pórtico, es el más grande del País Vasco. Mención especial merecen el Coro de estilo Reyes Católicos y el altar mayor, de estilo romanista.

Merkatua 1930eko hamarkadan eraiki zen merkatu plaza bisitatzea merezi du.

El Mercado Merece la pena entrar al mercado que fue construido a principios de los años 30.

8



Memoriarako espazioa Memoriarako Espazioa Durangon 1937ko martxoaren 31n izandako bonbardaketaren biktimak gogoratzeko monumentua da.

Espacio para la memoria El monumento Espacio para la Memoria está dedicado a las víctimas del bombardeo ocurrido el 31 de marzo de 1937.

Jesuiten Eliza

1904ko eliza neogotikoa da. Manuel María de Smith-ek egin zuen.

Iglesia de los Jesuitas

Iglesia neogótica de 1904. Obra de Manuel María de Smith.

9



Turismo Bulegoa eta Kurutzesantu Museoa Turismo Bulegoa Kurutzesantu Museoa dago. Kurutzesantu Museoa, Kurutzia gurutzearen gordeleku eta babesleku da. Gurutze gotiko ederreko Monumentu historiko-artistikoaren kategoria du.

Oficina de Turismo y Museo Kurutzesantu La Oficina de Turismo está situada en el Museo Kurutzesantu. El Museo acoge la Cruz de Kurutzia, crucero de extraordinaria belleza gótica con categoría de Monumento Histórico Artístico.

10



Bizenka Mogel Liburutegia

1826ko eraikin neoklasikoa da eta haur hezkuntzako eskola izan zen.

Biblioteca Bizenka Mogel Es un edificio de estilo neoclásico que fue construido en 1826 y fue escuela de primeras letras.

11

Zezenak dira "Zezenak dira" urriaren 13an, San Fausto Jaietan, ospatzen den ekitaldi tradizionala da.

Zezenak dira "Zezenak dira" es un evento tradicional que se celebra en las fiestas de San Fausto, el 13 de octubre.

12



Pinondo Plaza Parke honetan hainbat elementu interesgarri daude: Astarloaren oroimenez egindako estatua, Ampuerori eskainitako plaka, gurutze gotikoa, iturri neobarrokoa eta Ginkgo Biloba espezieko zuhaitz eder bat. Paco de Lucía gitarristak Etxezurria etxera etortzen zen uda batzuetan.

Pinondo Plaza Encontramos una estatua en recuerdo a Astarloa, una placa dedicada a Ampuero, una cruz gótica, una fuente neobarroca y un hermoso Ginkgo Biloba. En la casa Etxezurria pasaba algunos veranos el guitarrista Paco de Lucía.


14



Tabirako San Pedro Eliza Eguno eraikuntzaren tamaina eta orientazioa XV. mendekoa da, eta ustez, aurreko Erdi Aroko eliza zegoen lekuan kokaturik dago. Tabirak bi osagai ditu: Erdi Aroko San Pedro eliza, eta Errosarioko ermita, XVIII. mendearen atxikia.

Iglesia de S. Pedro de Tabira La actual construcción fija su tamaño y orientación en el siglo XV, localizada sobre el emplazamiento que supuestamente ocupaba una iglesia medieval anterior. Tabira está constituida por la suma de dos elementos diferentes: la iglesia medieval de San Pedro y la ermita del Rosario, adosada desde el s. XVIII.

6



Antzinako emakumezkoen kartzelako sarrera
Puerta de entrada a la antigua cárcel de mujeres.

IBILBIDEK KANPO / FUERA DE RECORRIDO

Landako Gunea

Era guztietako jarduerak eta ikuskizunak egiten dira.

Espacio ferial donde se realizan actividades de todo tipo.

Plateruena Kafe Antzokia

Antzinako udal hiltegiaren kokatzen da. Gaur egun Kafe Antzokia da.

Ubicado en el antiguo matadero municipal, en la actualidad es un Café Teatro.

Mikeldiko idoloa


Burdin Arokoa da (K.a. V-I mendeak). Animalia bat irudikatzen du. Antzina, izaera magikoa izan zezakeen.

Idolo de Mikeldi Es de la II Edad del Hierro (siglos V-I a.C.). Representa un animal. Antiguamente pudo tener un carácter mágico.

Madalenako Ermita

XIX. mendearen hasieran eraiki zuten.

Ermita de la Magdalena Construida a principios del siglo XIX.



JATETXEA RESTAURANTES

1	Kobika · San Ignacio Auzunea, 8	94 681 00 03
2	Anboto · Goienkalea, 14	94 681 10 20
3	Asador Botafumeiro · Olleria kalea, 8-10	94 620 35 71
4	Batzoki Durango · Zumalakarregi kalea, 6	94 465 77 40
5	Bodegón Landako · Txibitena auzunea, 12	94 681 19 40
6	Bodegón Montorretas · Pol. Ind. Mont., Aliendalde, 9 E	94 646 27 26
7	Bodeguilla Urko · Urko, 3	94 681 30 12
8	Gaztelua · Herriko gudarien, 1	94 681 67 22
9	Gorrotxa · Askatasun etorbidea, 31	94 681 03 68
10	Gran Hotel Durango · Gasteiz bidea, 2	94 621 75 80
11	Kukutze · Askatasun etorbidea, 19	94 465 73 88
12	La Oficina · Herriko Gudarien, 4-6	94 681 73 48
13	Lapur Errota · Fray Juan de Zumárraga, 31	94 681 54 44



14	Leaniz · Alluitz, 5	94 620 37 11
15	Les Villes · Kanpantorrosta, 1	94 466 84 82
16	Manolo · Zabalarra, 11	94 681 10 41
17	Mesoi Barria · Kalebarria, 1	94 603 03 41
18	Momotox · Durangoko Plateruen plaza, 12	94 603 07 91
19	Olajaregi · Kurutzia kalea, 52	94 620 08 64
20	Plateruena Kafe Antzokia · Landako etorb., 4A	94 603 03 00
21	Sidrería Kupela Sagardotegia · Saibi, 2	94 681 66 58
22	Siglo Nuevo · Montevideo, 24	94 620 40 71
23	Sushi Oso Panda · Madalena plaza, 5	94 620 33 06
24	Tabira Etxea · Tabira, 33	94 681 02 41
25	The Gallery · Montorreta, 1 (Simply)	94 675 77 50
26	Txakoli Larrinagatxu · Larrinagatxu auzoa, 4	94 681 49 66
27	Txantones · Goienkalea, 3	94 620 39 27
28	Xixilu · Oñituri, 4	94 681 10 99

AUDIOGIDAK LAGUNDUTAKO IBILBIDEAK Eska ezazu zure audiogida Turismo Bulegoan RECORRIDOS AUDIOGUIADOS Solicita tu audioguía en la Oficina de Turismo

	Historia eta ondarearen ibilbidea Recorrido sobre la historia y el Patrimonio	Kurutziaga Gurutzea La Cruz de Kurutzia	Durangoko bonbaraketaren ibilbidea Recorrido sobre el bombardeo de Durango
EUSKERA	951 + PLAY  	971 + PLAY 	961 + PLAY 
CASTELLANO	952 + PLAY	972 + PLAY	962 + PLAY
ENGLISH	953 + PLAY	973 + PLAY	963 + PLAY
CATALÀ	954 + PLAY		
FRANÇAIS	955 + PLAY	975 + PLAY	
DEUTSCH	956 + PLAY		



H HOTELAK HOTELES

Gran Hotel Durango**** Reg.: HB101105 94 621 75 80
www.granhoteldurango.com
reservas@granhoteldurango.com

Hotel Olajaregi*** Reg.: HB101255 94 620 08 64
www.olajaregi.com
info@olajaregi.com

Hotel O Camiño* Reg.: HB101145 94 621 60 36
www.ocaminohotel.com
hotelcamino@gmail.com

P PENSIOAK PENSIONES

Errota Pentsioa** Reg.: HB101136 94 621 60 21
www.errotaostatua.eus
errota@errotaostatua.eus

Juego Bolos* Reg.: HB100070 94 621 54 88
www.juegobolos.com
info@juegobolos.com

B BED&BREAKFAST

Eguzki B&B Reg.: LB10015 94 465 60 75
www.eguzkibandb.com · info@eguzkibandb.com

NEKAZALTURISMO AGROTURISMO

Dukebaso Reg.: KB100096 675 706 055
evadermit@gmail.com

A APARTAMENTU TURISTIKOA APARTAMENTO TURISTICO

Azoka etxea Reg.: E-B1-1078 615 794 459
txatodurango@gmail.com

BISITA AUDIOGIDATUAK

TALDEI EDO GIDARIEI ZUZENDUTAKO BISITALDIAK

DURANGO - BIZKAIA



Kurutziaga Gurutzea

Hasiera: Turismo Bulegoa eta Kurutzesantu Museoa

Iraupena: 10 min.

Geldialdiak: 1

Taldeentzako audiogidaren kodea: KURU + EUS

Banakako audiogidaren kodea: 971 + PLAY

Doan da

1. Ibilbidea: Durangoko Historia eta Ondarea

Hasiera: Lariz Torre

Iraupena: 90 min.

Geldialdiak: 14

Taldeentzako audiogidaren kodea: 1 + EUS

Banakako audiogidaren kodea: 951 + PLAY

Prezioa

1 €/buruko

20 €/taldeko

2. Ibilbidea: Aztarnak, Durangoko bonbardaketa

Hasiera: Kurutziaga Kalea (Turismo Bulegoaren aurrean)

Iraupena: 25 min.

Geldialdiak: 6

Taldeentzako audiogidaren kodea: 2 + EUS

Banakako audiogidaren kodea: 961 + PLAY

Prezioa: 1 €/buruko

20 €/taldeko

PIZTU/ITZALI

Pizteko edo itzaltzeko bi botoiak sakatu. Itzaltzerakoan YES balioztatu (horrela transmisorea eta errezeptoreak amatatu egiten dira)

Piztu eta itzali

MENUAN ZEHAR MUGITU

Sakatu aldi berean goian esandako teklak. Gero, hauetako tekla batekin mugitu gaitezke parametro hauek agertzen diren aldian:

ID SETTING: 00070
CH SETTING: 070
RUTA SETTING
MPS VOL SETTING: 016
RF SETTING: 001
RUTA SETTING

Menuan zehar mugitzeko

Hizkuntza edo ibilbidea bilatu

**Ibilbidea aukeratu/
Azalpena hasi**

Hizkuntza aukeratu



T 94 603 39 38
turismo@durango.eus
www.turismodurango.net

IBILBIDEA AUKERATU

RUTA SETTING agertzen denean ibilbidea aukeratu dezakegu goiko eta beheko botoiak sakatuz. (M) Tekla sakatuta, ibilbidea hautatzen dugu


HIZKUNTZA AUKERATU

Goiko eta beheko teklak erabilia, nahi dugun hizkuntza bila dezakegu.

Nahi dugun hizkuntza agertzen denean, alboetako bi teklak aldi berean sakatu behar ditugu.

ENTZUNALDIA HASI

Entzuten hasteko, (M) botoia sakatu behar dugu. Honen bidez, gelditu ere egin dezakegu.



PIZTU

Belarrian jarri baino lehen aparailua piztu behar dugu. Horretarako, erdiko botoia sakatu behar dugu segundu batzuez.

Amaitzerakoan kargatzeko tokian utzi behar dugu. Ez dugu aparailua zertan amatatu.

NOLA JARRI BEHAR DA

Betaurrekoen patilla bat balitz bezala jarri behar dugu.

Gehienak ezkerreko belarrian jartzeko dira.

Belarriz alda dezakegu patilla posizioz aldatuta.

BOLUMENA IGO EDO JAITSI

Botoi hauen bitartez bolumena igo edo jaitsi dezakegu.

KURUTZIAGA GURUTZEA

Durangoko Turismo Bulegoa Kurutzesantu Museoan dago; bertan dago Kurutziagako Gurutze bikaina.

Estilo gotikoko gurutze hau, zalantza barik, ezagutzen den gurutze eder eta interesgarrienetako bat dugu, bai bere lanketak daukan kalitate artistikoagatik bai bere esanguragatik. Ikertzaile gehienek esaten dutenez, XVI. mende hasierakoa izan behar du.

Harearrian egina dago, 4 metro eta erdi luze da; hala ere, oinarria XIX. mendean erantsi zioten.

Interpreta dezagun!

Has gaitezen behealdetik, fustetik.

Emakume burua duen suge tentatzailea kiribilduaz doa, eta Genesiaren hasiera adierazten duten hiru eszena ageri dira.

Lehenengoan, Eva, paradisuan biluzik eta inongo lotsa barik, biziaren zuhaitzaren adarrek inguratuta dago. Sugeak eskaini dion sagarra dauka eskuan. Oraindik ez daki lotsa zer den.

Kontrako aldean, bigarren eszena ikus daiteke. Bertan, Adamek eta Evak, fruitu debekatutik jan ostean, pikondo baten hostoekin eta eskuekin estaltzen dute euren biluztasuna.

Hirugarren eszenan, San Migel arkanjeluak Eva paradisutik kanporatu zueneko irudikatzen da.

Begirada jaso eta 12 apostoluak agertzen diren danborrera iritsiko gara, benetako fedearen argira. Ezaugarri batek ordezkutzen du apostolu bakoitza.

Eskuan daramaten ebanjelioaren bidez, apostoluek zera ordezkutzen dute: Elizaren mezua, Egia, salbaziorako bidea.

Gurutzeari zentzua ematen dion gailur unea, zalantza barik, goialdean dago: gurutzaduraren aurrealdean, Kristo Berreroslea, eta atzealdean, berriz, Andre Maria Berreroskidea.



Gurutzean Kristo gurutziltzatua dakusagu, bere ama eta San Juan apostolua bertan direla. Samintasun keinu adierazkorra eginez, burua bihurtzen dute Kristo hila ez ikusteko.

Lau aingeruk Kristoren odola batzen dute.

Oinarrian burezur bat dakusagu, lehen gizona izan zen Adamen heriotzari erreferentzia eginez. Testamentu zaharraren eta berriaren arteko konexioa da.

Kalbarioaren gainean, Eguzkia eta Ilargia, gurutze hankadunak daramatzaten aingeruek koroatuta, unibertsoko erregeak balira bezala; ondorioz, eguzkiak Jesukristo eta ilargiak Amabirjina sinbolizatzen duela pentsa liteke.

Beste aldera begiratuz gero, Andre Maria ikusiko dugu Jesus haurtxoarekin jesarrita, Jainkoaren aurrean bitartekari, bekatuen berrerosle.

Ondoan, bi emakume irudi daude: bata Santa Barbara da, giltzapetuta egon zeneko dorrea daramala, eta bestea Santa Katalina, gupil horzdun batekin.

Ama birjinaren oinetan, bi irudi hauek: San Atanasio eta Santa Paula, biak ere aureolarekin. Lirioa edo zitori horia gurutzearen errematea da eta, Amabirjinaren gainean, Trinitatea sinbolizatzen du.

Ikusi dugunez, Gurutzeak kontatzen digun istorioa fustean hasten da, non bekatua eta zigorra irudikatzen baitira; gero kapitolean gora egiten du, Ebanjelioa irudikatzeko, eta gurutzaduraraino iritsi, non Barkamena eta Salbazioa irudikatzen baitira.

Erredentzioz eta itxaropenez betetako mezu bat da, beraz.

Irudi eta xehetasun batzuk arkaismo artistikoz landuta daudela eta, hamarkada luzez jo izan da hori zahartasun seinaleztat.

Hala ere, gurutze honen egileak bazeukan Herbehereetan eta Alemanian XV. mende bukaeran eta XVI.aren hasieran arrakasta zeukaten eredu ikonografikoen berri.

Orain eraikinean ipiniko ditugu begiak.

Bere bost mendeko bizialdian, itxura, tamaina eta erabilerak aldatuaz joan da Vera Cruz ermita izan zena.



Obra zibil gisa hasi zen XV. mendean eta mende bat geroago handitu egin zuten. XVII. mende hasieran, Bakardadearen kapera eraiki zuten bertan, eta eraikina kupula batekin nobletu.

Eraikina Vera Cruz kofradiaren egoitza izan zen, bai eta udal hauteskundeak egiteko lekua eta elkarteentzako gunea ere; gaur egun Kurutzesantu Museoa eta Turismo Bulegoa da.

Vera Cruz kofradia heriotzan laguntzen eta askotariko prozesioak antolatzen ibiltzen zen. Beti egon zen Gurutzeaganako debozio eta kultu handia, katolikoen funtsezko ikur batez ari garela kontuan hartuta.

1489. urteko dokumentu batean jasotzen denez, Kurutziagako Gurutzeak bazeukan beste eginkizun bat ere, alegia, Durangoko Hiribilduaren muga markatzen zuen Gurutze Jurisdikzionala izatearena.

Baina sekula ere ez da jakin argi Gurutzeak loturarik izan ote zuen hiribilduan Erdi Aroan jazotako gertakari garrantzitsu eta traumatikoenetako batekin, hain juxtu ere “Durangoko herejeak” izenez ezagutzen denarekin.

Mugimenduaren buru ezagunena Frai Alfonso de Mella izan zen, frantziskotarra eta Zamoran jaioa. 1437 inguruan iritsi zen Durangoko merindadera.

Zenbait bide komertzialen artean kokatuta egonda, Durango nabarmendu egiten zen bertako merkataritza jardueragatik, oihalgintza eta teilagintzagatik, bertako olagizon eta larrugileengatik; izan ere, 1514an jaurerriko hiribildurik populatuena bihurtu zen Bilboren ostean.

Banderizoen arteko borrokak gaiztotu egin ziren, eta indarkeria zabaldu merindadean.

Oso denbora gutxian, Mellak gidatutako mugimenduak jarraitzaile kopuru handia erakarri zuen, eta beste inguru batzuetara zabaldu zen.

Ez dirudi astakeria denik pentsatzea euskararen erabilerak, elite eklesiastikoetatik urrun, elizak Bizkaiko lurraldean zeukan kontrola –berez nahiko murrizta– are gehiago murrizten zuela, eta aitzitik, bere predikuetan antzinako hizkuntza hau erabiltzeak lagundu egin ziola Mellari bere ideiak transmititzen.

Topiko asko heredatu dugu mugimendu honi buruz; esaterako, ondasunen eta gorputzen erkidegoa aldarrikatzen zuela. Baina Alfonso de Mellaren ideiek ez

zeukaten horrekin zerikusirik inondik ere; bai ordea hierarkia eklesiastikoari egiten zion kritikarekin, pobreziaren inguruko bere idealarekin, Espiritu Santuaren Aroaren etorrera iragartzearekin eta estatu perfektuago bat ezartzearekin, non Eliza berria sortuko baitzen.

Mella, beraz, erreformatzaile gisa agertu zen, aro berri bat iragartzen duen profeta iluminatu gisa.

Bai Koroak bai Elizak euren mekanismoak jarri zituzten martxan disidenteak isilarazteko, eta mugimendua gogor erreprimitu zuten.

Nonbait, garai hartako durangarren sekulako inpaktua eragin zuten errepresioak ekarritako ondorioek, izan ere, herrikide nahiz familiarteko asko ikusi zituzten sutan hiltzen.

Horrek azalduko luke zergatik herritar batzuek laguntza eta babesa eman zieten zenbait disidenterik ezkutatu eta ihes egiteko.

Akusazioak hurrengo gizaldiaren hasieraraino iristen dira, mugimenduak Durangoko merindadean izan zuen garrantziaren erakusgarri.

Mugimenduaren liderrek ihes egin zuten 1441ean Granadako Nazari Erresumako lurralde musulmanetara.

Honenbestez, edertasun handia bai, baina asalduraz betetako historia daukan gurutze baten aurrean gaude.

1954an historia eta arte monumentutzat jo zuten.

Gurutze misteriotsu honi buruzko xehetasun gehiago jakin ahal izateko, Museoaren bi solairuak ibiltzera gonbidatzen zaitugu.

1 IBILBIDEA

DURANGOKO HISTORIA ETA ONDAREA

1. GERALEKUA (LARIZ DORREA)

KAIXO, ONGI ETORRI

Durangoko hiribilduan barrena paseatzeko gonbit egiten dizuegu, bertoko historian eta kultura-ondarean sakontzeko asmoz.

Hiribilduaren garaietan eta gorabehera historikoetan zehar paseatuko dugu, bertoko ondarean barrena ibiliko gara, bertoko kaleetatik, herritarrekin, beti Mañaria ibaiaren uraren marmarra bidaide izanik. Has gaitezen.

Lariz dorrearen ondoan gaude. Lariztarrak beso luzekoak izan ziren Durangon. Hiribilduan Erdi Aroan izan omen ziren bost dorreen artean zutik dirauen bakarra da Lariz dorrea. Dorrearen kokalekua ez da ustekabekoa, zeren eta lurzati hori Barrenkaleko hego-muturrean baitago, hiribildura sartzeko ateetako batetik oso gertu, baita herriko bi elizetako batetik, Santa Ana elizatik, ere. Izan ere, geroago ibiliko gara handik.

Lariz dorretxea Errenazimentu garaiko hiri-jauregia da, eraikuntza-kalitate handikoa eta apainketa jorikoa. XV. mendearen bukaeran eraiki zen. Gaur egun dakusagunez, hots, arrosa-koloreko hareharrizko larruaz, harburu zaintzaile eta bao zorrotzekin ikusi zuen, agian, Isabel Katolikoak, 1483an, hiribilduko Foruen zina egin ondoren, Martin Ybannes de Larisen etxeetako batean (batek daki Lariz dorrean izan zen) gaua eman zuenean.

Dorre horren bizitza ez da erraza izan. Lehenago, toki horretan Erdi Aroko etxebizitza zaharrago bat zegoen. Garai bateko etxe hori harrizko plintoen eta zurezko zutoinen gainean eraiki zen eta XIII. mendeko bigarren erdialdekoa da. Etxebizitza horren ordez, XV. mendearen bigarren erdialdean hiri-jauregi

bat eraiki zen, gutxienez bi solairurekin eta egungoaren oinplano berdin-berdinarekin. Zerbitzuen aldera etxabeko erdi-puntuko arku batetik sartzen da, eta oin nagusira, albo batean dagoen zurezko mandio batetik (gaur egun ez dagoena). Oin nagusiak arku zorrotz bikoitzeko eta mainel apaindudun leihotxoetatik hartzen zuen argia. Handik gutxira, eraikinaren alde bat aldatu zen: hamahiru mentsulen gainean balkoi jarraitua jarri zen eta dekorazio joriagoa erabili zen, leihoetako landare- eta boladun erliebeek adierazten dutenez, lehenengo fasearen soiltasunaren oso bestelakoa. XIX. mendearen bigarren erdialdean espetxe bilakatu zen eraikina; etxabeko leihoetako baten gainean barrek utzi zuten marka ikus dezakegu oraindik. Geroago, auzoentzako etxe bilakatu zen. Eraikina hiltzear zegoenez, goitik behera birgaitu zen egoki, XXI. mendean, handiki eta dotore bilakatzeko, XV. mendeko urrezko garaian izan zuen itxura berarekin.

Jarraian, Artekaleak eta Santa Ana plazak bat egiten duten tokirantz abiatuko gara. Eskuinetara elizako errotaren ura husten zuen erretena utzi dugu. Atzo bezala gaur, etengabeko uraren marmarra dantzugu.

2. GERALEKUA (SANTA ANA PLAZA)

Aurrez aurre, Santa Ana plaza, hiribilduko tokirik zahar eta handikienetako bat.

Zoritxarrez, ez dugu "Tabira de Durango" hiribildua sortu zuen jatorrizko hiri-gutuna. Agiri hartan hiribilduaren pribilegioak eta antolamendu juridikoa aipatzen ziren. Durango izena XI. mendean agertu zen, hiribilduaz baino lurralde zabalago batez aritzeko. Lurralde hori, lehenengo konderria izan zen, eta geroago, merindade.

Gaur egun, eztabaida sutsua sortu da Durangok forua noiz jaso zuen zehazteko. Batzuen ustez, fundazio goiztiarra izan zen, hain zuzen ere, XII. mendaren erdialdekoa. Beste batzuen ustez, berriz, XIII. mendearen bukaerakoa omen da, kostalde kantauriarraren eta mesetaren arteko merkataritza-truke gorakorren ondoriozko baldintzatzaile ekonomikoa zela eta.

Argi dago, hiribilduaren fundazioa ekarri zuen aldaketa juridikoaren aurretik, lursail haietan biztanleak eta tailerrak bazeudela, Kalebarrian egindako datazioek, XI. mendekoek, adierazi dutenez.

Hiribildu bat fundatzeko, alde zehatzetik plangintza- eta diseinu-ahalegin handia egin beharra dago. Durangori dagokionez, harritzekoa izan zen ahalegin hori. Gaur egun ezagutzen dugun bezala sor zedin, Mañaria ibaiaren jatorrizko ibilgua desbideratu eta bete egin zen. Gaur egun oraindik du plangintza hartaz arduratu ziren lehenengo boni homines durangar haien trazadura.

Plaza horretan egin diren azterketa arkeologikoek garai batean egungo ibilguaren paraleloa izan zen harresi-zati bat egon zela dokumentatu dute. Ibaiak jatorrizko ibilgura itzultzeko duen berezko joera saihesteko eta ibilgu berria gogorarazteko eraiki omen zen.

Harresiak hiribildua inguratu eta mugatzen zuen. Herritarrak babesten zituen eta, aldi berean, hiribildua inguruko landa-ingurunetik bereizten eta mugarritzen zuen. Landa-inguruneari lur laua deitzen zitzaion eta elizatatetik banatzen zen. Harresia babes-elementua zen, baina, batez ere, elementu sinbolikoa, hiribildua harro egotekoa.

Harresiko ateak esparruko gune ireki bakarrak ziren. Horietatik barrura sartzen zen. Salgaiak eta pertsonak zorrotz kontrolatzen ziren, eta epidemia edo arriskurik bazegoen, itxi egiten ziren.

Durangoko hesian hiru atari irekitzen ziren jatorriz: Zumardikoa esaten ziotena ("El Olmedal", gaztelaniaz), Kurutziaga, eta Santa Ana plazakoa (gaztelaniaz, puerta del Mercado o de Santa Ana). Hori Arabarantzko bidearekin lotzen zen.

3. GERALEKUA (UDALETXEA)

Aurrez aurre dugu Udaletxea. Bizkaiko udaletxerik ederrenetako bat da Durangokoa. Baina, errepara diezaiogun, lehen-lehenik, lurreko plakari: hiribilduaren 1857ko planoak da, Coellok egindakoa. Plano hark Erdi Aroa garrantzitsua. Nolakoa zen hiri hura? Lau kale paralelo daude, Iparraldetik Hegoaldera: hiru kaleri, ibaiarekiko duten kokapenaren arabera jarri zitzaizkion izena, Barrenkalea edo "Yusera", Artekalea edo "En medio" eta Goienkalea edo "Susera". Laugarren kalea, Kalebarria, geroago ireki zen. Haiek guztiek obaloa eratzen dute eta zeharkako kantoietatik, Zeharkaleak, zeharkatzen ditu.

Demagun Erdi Aroko zolatu gabeko kale haietatik gailtzea: etxeak modu irregularrean lerrotatzen dira, kaleetatik abere eta gurdi ugari dabilta, salmahai ugari dago, artisauek jendaurrean lan egiten ari dira, kiratsa jasanezina da.

XIX. mendetik aurrera, mundu tradizional hura pixkanaka desagertuz joan zen. Aldaketa hura planoan islatzen da. Hondatutako eraikinen ordeztze eta etxe-mota berriak eraiki ziren eta kaleak egoki lerrokatu ziren. Gerra Zibilean izandako bonbardaketaren ondorioz, orain gauden plaza ireki zen, lehen etxeak zeuden leku berean.

Erdi Aroan, Durangok ez zuen bertoko erakundeak hartzeko eraikinik. Hiriko eliteek erakunde haiek mendearen zituzten. Kontzejuaren bilerak elizpean edo alkatearen etxean egiten ziren. Errege-erregina Katolikoek hiribildu guztiek kontzeju-etxea izateko agindu zuten. Durangok Artekalea kalean zuen egoitza.

1554an hiribildu gehiena erraustu zuen sute suntsitzailearen ondorioz, kutsu napoliardun eraikin handi klasiko hura eraikitzen hasi zen hiribilduko erdialdeko leku batean.

“El Escorial” monasterioan lan egiten ibilitako maisu hargin Martín de Ibarguenek diseinatu zuen 1570ean. Oin nagusiko balkoiak XVIII. mendean gehitu ziren.

Geldi gaitezen eraikin haren aurrealdean, rokokoaren kutsua dakarkiguten amarru, musikari eta ehiza-eszenen mundu hartan. Pintura horiek Ignacio de Zumarragak 1772an “La Comedie Francaise” delakoan inspiratuta egin zituen jatorrizkoen kopiak dira, gerra zibilaren ondoren egin zirenak.

Euskal Herriko udaletxetan ohikoa zen karrerapean barneratzen bagara, tokiari izaera publikoa antzeman diezaiokegu. Garai batean, herritarrek parte hartzeko kontzejuak egiten omen ziren bertan eta handik beste instalazio batzuetara sartzen omen zen, hala nola, kartzelara, errege-pisura edo alondegira, Udalaren boterearen erakusgarri ziren toki haietara.

40ko hamarkadan eraikina berreraiki eta handitu zen, itxura barrokoa eta jatorrizko arkuak iraunaraziz, ezkerretara bi arku gehiago gehi bazitzaizkion ere. Horretarako, Arteaga-Gamboatarren jauregi bat okupatu zen. Gaur egun udaltzaingoaren bulegoen gainean haren armaria dago oraindik.

4. GERALEKUA (SANAGUSTINALDE)

Harresi-barrua txiki geratu zen laster: handitzeko lanak egin ziren, atzealdeko ortuak kendu ziren eta orubeak banandu ziren, biztanleriaren hazkundera jasan ahal izateko. Horrela, XV. mendearen bukaerarako, bost errebal zeuden

hiribilduaren atarien ondoan: hau, Zabalakoa, Hermodo, Kurutziaga, Intxaurrondo eta Pinondo. Errebalen garapena atarien inguruko merkataritzaren atzera-aurrerei eta bideen merkataritza-mugimenduari lotu-lotuta egon zen, baita toki eguzkitsu eta bizigarritasun hobekoetan kokatzeari ere.

Harresiz kanpo geundeke orain, beraz, Zabala atariaren edo San Juan atalondoaren bidez hiribildura sartzeko zubietako batean.

Mañaria ibaiaren ertzetik zihoan harresia ez zetorren bat aurrealdea ibaiari begira jarrita zuten etxeen azpian ikusten ditugun XIX. mendeko ikuztegietakoa horma handiarekin, uste zen bezala. Etxe-lerro hartatik barrurago zegoen. Harresiaren eta lehenengo etxebizitzaren arteko erronda-bide batetik haren perimetro osoa ibiltzen zen. Hala ere, XV. mendetik aurrera, hesiaren gainera etortzeko prozesua hasi zen, horren muga gainditu arte; prozesu hura XIX. mendean bukatu zen, etxe-lerro berriak gainditu zuenean eta lurrera bota zenean, muga-zeregina eta ikur-zeregina galdu egin zituelako. Ibaira irekitako atzeko begiratokiei erreparatu behar diegu hemen.

Hiribildua atzean dugula, leku pribilegiatu horretan oso eraikin ederrak eta arte- eta ondare-interes handikoak daudela ikusiko dugu. San Agustin Komentuak, XVII. mendekoak, multzo ederra osatzen duten bi eraikin dauzka. Egoitzak, patio baten inguruan antolatuta, abade-balkoia du bere aurrealde nagusiko elementu nabarmengarri bezala, forjako karelaekin eta armari batekin. Eliza deigarri gertatzen da bere aurrealde angeluzuzen berezi handiagatik eta kalera irekitako erdi-puntuko arkudun arkupe-lonjagatik. Gaur egun, San Agustin Kultur Etxeko egoitza da.

Kalearen beste aldera, Etxezarreta Jauregia, gaur egun Durangoko Arte eta Historia Museoaren egoitza dena, Euskal Barroko Soilaren bereizgarri guztiak jasotzen dituen eraikina da: erdiko ardatza bultzatzen den aurrealde nagusiko interesdun elementuen bilketa, bao erregularizatu eta zuzenak, atzeko lorategia eta hegoalderantz orientatutako galeria. Eguzki-erlojuaren xehetasuna ikus dezakegu bere aurrealde nagusian ere.

Etxezarreta eta San Agustin Komentuaren artean, Montevideoko fundatzailea izan zen Bruno Mauricio de Zabala y Cortázar durangarraren jaiotetxea dago. Bizkaiko eta Gipuzkoako jauregien tipologiari jarraitzen dion oinetxea da. Aurrealdeko horma baino ez da harlanduzkoa, eta hori Barrokoaren berezko ezaugarria da.

5. GERALEKUA (EZKURDI)

Gaurko Durangoren erdi-erdia den Ezkurdi plazan gaude, hain zuzen ere, bertoko iturri neobarrokoaren ondoan. Musika-kioskoak, zuhaiztiak..., paseatzeko eta beste batzuekin elkartzeko leku ludikoa dakarkigute gogora. Baina, zein izan da leku berezi horren jatorria eta bilakaera? Harresiz kanpo gaude, garai batean Bilboranzko errege-bideak zeharkatutako zumardun belardia izan zen hartan. Erdi Aro Berantiarretik aurrera, ortudun etxeak eraiki ziren berton, leku eguzkitsuaren bila. Horrela Zumardia ("Olmedal", gaztelaniaz) errebala sortu zen.

XIX. mendearen bukaeratik aurrera, bertoko burgesiak, garai bateko errege-bide zen Zumalakarregi kalera begira dauden eraikin historizista eta erregionalista ederrak eraiki zituen. Geldi gaitezen Erdi Aroko gerrarien, Errenazimentuko logien eta leiho poligonal ingelesaren nahas-mahasa erakusten digun aurrealdean. Teodoro Arocenaren etxea da, 1922an Mario Caminok eta Diego de Basterrak egin zutena. Etxe horren ezkererako hurrengoa, bi isurkiko estalkia duena, Pedro Guimónek, euskal baserria goratu zuen arkitektoak, egin zuen urte horietan. Aldamenekoa Casto de Zabala Gorbeia lehen gurutzearen egilearena da. Bere begiratokiak, bizitza burgesaren ikur direnak, nabarmentzen dira.

Eskuinetara jotzen badugu, karrerapeen ondoan, harlanduzko horma bat aurkituko dugu. XVIII. mendeko pilotaleku zaharraren hondarra da, azkenekoz 1954an handitu eta geroago lurrera bota zena. Hartan egintza kultural eta politikoak garatu ziren eta haren inguruetan barrakak eta txosnak jartzen ziren. 1882an trena iritsi zenean, plazako bizitza soziala eta jai-bizitza ugaritu egin zen, baita tabernak, kafetegiak, hotelak eta alderdi politikoen egoitzak ere.

Pasea gaitezen iturriaren ondoan hasten den zuhaiztitik, 60ko hamarkadaren bukaerako plaza abangoardistaren diseinua esperimentatzeko. Fullaondo eta Olabarria arkitektoen oso birmoldaketa polemikoa eta gutxi ulertua izan zen, 1971n saritu bazen ere. Itxurazko desordenan dauden bere formek gaur lehortuta dauden kanalak eta erakusketa-gela bat barne hartzen dituzte. "Pilota Jokoa" harrizko estela, iturritik hurbil dagoenak Jorge Oteiza eskultorearen lanetan oinarritu dena, proiektu horren zati da. Olabarriak, plazaren sortzaileetako batek, plazaren zati bat birmoldatu zuen 2007an, karrerapeetaranzko espazio ireki handia sortuz, hain zuzen ere, gaurko pilotalekurako sarbidea dagoen tokian.

Juan de Zumarraga Anaiari egindako monumentua 1949an eraiki zen harpidetza publiko mexikarraren bitartez. Basaltozko hormak Abadiñoko Muntxaratzeko dorreak, frantziskotar durangarraren amaren oinetxeak, dakarkigu gogora. Atzealdeko inskripzio batek bere bizitzaren ikuspegi bat ematen digu.

Plazaren atzealdean, tren-geltoki berria lurreko errailetatik ateratzen da.

6. GERALEKUA (ANDRA MARI ZUBIA)

Orain, hiribildura sartzeko beste ate batean gaude, hain zuzen ere, Uribarriko Andra Mariaren Basilikaren aurrean. Ura berriro ere bidaide dugu. Uraren hotsak historia kontatzen digu; uraren islak leku honen edertasuna erakusten digu.

Zumardiko atariak, zona honetan egongo zenak, San Pedroren truke aldatu zuen bere izena, XVII. mendean santu horren irudi bat horma-hobi batean jarri ondoren. Haren ondoan hiribilduko bi errotetako bat zegoen. Errotak funtsezkoak ziren alea eraldatu ahal izateko eta gero kontsumitzeko. Biak Andra Mariaren Elizarenak ziren. Horren ondoan, Errenderia, hots, burdina erosi eta saltzen zen kontzeju-lonja, zegoen. Ibai-uraren maila igotzen eta haren indarra handitzen zuen presa ikus dezakegu.

Iturrien arabera, hauxe da Isabel Katolikoak, Juana alaba zaharrarekin, 1483an, foruak zin egin ondoren eta hiribilduko zubirik zaharrenean, orain gauden tokian, "hiribilduko harresietan orduan zeuden hainbeste atetako urrekoloreko bost giltzak" jaso ondoren, hiribildura sartzeko erabili zuen sarrera.

Eliza hori, Santa Ana elizarekin batera, fundazioaren unean agertu zen; oso egoera bitxia, bere botere ekonomikoaren ideia ematen diguna. Foruaren berrespenean, 1372an, horren aipamena egin zen.

Mendebaldeko arkupeak, gure aurrean harro ageri denak, eraikinaren sostengu-funtzioa egiten du. Hori elizarako sarbide nagusia izango litzateke. Molde klasizistako aurrealde erretaula soil eta edertasun nabarmen eta lasaiko moduan antolatzen da.

Multzoari begiratua ematearekin nahikoa dugu oso eraikin konplexua, interpretatzeko zaila eta eraikuntza-fase desberdinen emaitza dela

konturatzeko: lehen lanak, estilo gotiko-errenazentista duenak, eraikinari bere proportzio orokorrak eta bere kanpandorrea eman zizkion. Gero, burualdearen ondoan jarrita, ikusiko dugu kanpandorre hori. Bigarren lana, estilo klasizistaduna, elizaren gaurko egitura gehienez ikusiko dugu, baita hegoaldeko eta mendebaldeko arkupeetan ere. Azken finean, Euskal Herriko arkitekturako eliza monumental nabarmenenetako bat da.

XVI. mendeaz geroztik jada, eliza horren egituran etengabeko arazoak zeudela esaten zen. Mende bat geroago, eliza goitik behera eraberritu zen. Eraberritu zuten arkitektoen gustu zaharkitua, ganga tertzeleteen erabileran eta barrualdeko gurutzerian nabari geratzen da. Erdiko nabea handitu egin zen eta alboko bi nabe agertu ziren, kontrahormen artean kaperak eta burualde poligonalean girola edo deanbulatorioa zituztela.

7. GERALEKUA (ANDRA MARI PLAZA)

Orain, basilikaren hegoaldeko elizpearen aurrean gaude. Interes kulturalako ondasun izendatu da elizpe hori.

Elementu horren handientzak ez du saihesten haren kokaleku ederra ere begiesten dugunik. Plaza horrek Durangoren bihotza izateko xarma du eta hartan eraikin interesgarri batzuk ikusiko ditugu, hala nola, 8. zenbakian kokatutako etxebizitza dotorea, XVIII. mendeko Barroko Ilustratu Bizkaitarraren adibide eta eraikuntza beretik alokairura zuzendutako auzotar-etxearen Bizkaiko lehen adierazgarria dena.

Aurrean, jada ezagutzen dugun mendebaldeko sarreraren azpian, garai bateko “Caja de Ahorros Vizcaína” aurrezki-kutxaren aurrealdea ikusiko dugu, baita bertoko Juan de Zumarraga Anaiaren eta Bruno Mauricio de Zabalaren eskulturak ere.

Basilikako teilatuaren gainean, kanpandorrea agerian dago, pinakulu eta trazeria apainketaz. Horren ondoan, ezpataina edo kanpai-horma batez errematatutako bigarren dorrea dago.

Jatorrian hori izan zen Durangoko Erdi Aroko azoka-plazaren kokalekua. Bertan ere hilerria egon zen.

XVII. mendeko azken herenean egindako zurezko egitura da arkupea. Baraincuaren eta Gabiriaren lana izan zen. Euskal Herriko herri-zureriaren lan garrantzitsuenetako bat da, zalantzarik gabe. Hamaika pilastra lodik sostengatzen dute estalkia, zeinak, erdiko bermerik gabe, Basilikako hegoaldeko hormarantz aurrera egiten duen, eta horma hartan, tenplura sartzeko beste ate bat aurkitzen dugu, portale klasizista batek markoztatuta. Arkupe aparta horren azpian, lehenengo Durangoko azoka haien oihartzuna oraindik entzuten dugula ematen du... euskarazko literaturaren eta musikaren biziberrialdia.

Elkarrekin lotuta ez dauden bi labirintoko joko batek zoladurako apainketa finkatzen du. Biek izar bat dute abiapuntu bezala, eta amaiera bezala, irudiaren erdialdea. Duela gutxiko garai batean, 1938 inguruan, egin baziren ere, irudi gotiko horien xarma dakarkigute gogora.

Basilikaren barrualdeak bisita geldia merezi du. Estilo erromanistadun erretaula bikaina nabarmendu behar dugu, Martín Ruíz de Zubiate maisuaren lana, Bizkaiko erretaulen adibide ederrenenetako bat, baita Uribarriko Andra Mariaren tailu gotiko berantiarra, erdiko horma-hobian estalpetuta dagoena. Aipamen berezia merezi du Errege-erregina Katolikoen estiloko kortxilak, elizaren jatorrizko elementurik zaharrena dena. Tenpluaren oinaldean dago, eta arku eskartzano zabal eta ausartaz eginda dago, zeina zerua izarrekin eta eguzkiarekin eta muturretan ilargia irudikatzen diren erliebe ederrekin apainduta dagoen.

Tenplu horren historiak XX. mendean zehar jarraitu zuen, zeren eta hiribilduaren zati bizia eta Durangok 1937ko martxoan jasan zuen bonbardaketaren zauri ezkutua baita: elizpea eta

8. GERALEKUA (KURUTZIAGA KALEA, ITURRIA)

Ezkerretara, Durangon XIX. mendeko bigarren erdialdean eraiki ziren hiru iturri monumentaletako bat dugu. Hirigunean ur gutxi zegoen eta Kurutziagako iturria lehena izan zen handik hiru kilometrotara zegoen Gallandako iturburutik ura ekartzen. Iturriaren atzean, Manuel María Smithen obra neogotikoa, Marcelino Arruperekin elkarlanean egin zuena: Jesulagunen San Jose egoitza eta eliza, 1905ekoa.

Aurrerantz begiratzen badugu, Gurutzearen errebalaren ikuspegi polita ikusiko dugu. Baina, ... zein da toponimo horren arrazoia? Erantzunak benetako gotikoaren azkeneko garaia garamatza, Erdi Aroaren gainbeherara. Maizko lekualdaketak gorabehera, ingurune horretan gurutze europar handienetako bat egon zen, bere jatorrietatik, inguruetako Kurutzesantu museoan bisitatu behar dugun bitxia. Bere lau metro eta erdi hareharrian, bekatuaren erospenean eta salbazioan sinesten duen kristau-fedea biltzen da. Gehienen arabera, Begardosen heresia konpontzeko modua izan zen, zeina XV. mendeko lehen erdialdean Durangaldean sustraitu zen eta gogorki zapaldu zen, nahiz eta Gurutze Santuaren gorapenaren herriko lekuko hutsa izan litekeen.

Erdi Aro Berantiarreko zabalgunek horretatik Gipuzkoarantz abiatzen zen. 1502an Arrasaterako bidea ireki zenean, auzo hori eskualdeen zerbitzu-zona bihurtu zen. Trazadura irregularreko plaza batean, urtero txerri-aziendako eta behi-aziendako azoka antolatzen zen. Ferra- eta iltze-lantegiak eta eltze-dendak zeuden han-hemenka. Nobilladak eta zezenketak ere egiten ziren bertan.

Gure atzean, etorri garen kalearen irteeran, Gurutzearen ezkaratza zegoen. XIX. mendearen bukaeran eraitsi zen. Etxe-uhartea eskuinaldetik azkentzen duen alboko aurrealdean, oraindik ikus daiteke Kristoren zurezko horma-hobi bat, seguru asko, XVII. mendekoa.

9. GERALEKUA (KURUTZIAGA KALEA / TURISMO BULEGOAREAN AURREAN)

Kurutziaga kalean barrena aurrera egingo dugu eta Durangoko toki dotoreenen batean geldituko gara. Beste gauza askoren artean, bertoko eraikinei odola nola darien ikusiko dugu, oroimen tristenaren gerrako ekintzek minduta.

Gure ondoan Gurutze Santuaren ermita ikusiko dugu, gaur egun Turismo Bulegoa dago bertan. XV. mendean sortu zen, eraikin zibil bezala, eta XVII. mendean Bakardadeko Kapera jarri zuen barruan. Gaur egun, hura birgaitu ondoren, Kurutzesantu museoa barne hartzen du, Kurutziagako Gurutze ospetsua gordetzeko eta jendeari erakusteko.

Ingurune horretan, santutxo bat eta "Entzunareto zaharra" zeuden behinola. Azken horretan Durangoko Merindadeko ohiko batzarrak egiten ziren, XVI.

mendean Abadiñoako Astola Etxera eta, beranduago, Abadiñoako Gerediagako ermitara eraman ziren arte.

Gure begirada kalearen amaierarantz zuzentzen badugu, Quadra edo Olaldeko jauregia ikusiko dugu, Gipuzkoaranzko bidean. Bizkaiko jauregi barrokoen beste adibide bat da.

XIX. mendeko ikuspegi urbanistikoaren oinordeko den kale zabal horretan, gustu finduko eraikinak aurkituko ditugu, hala nola, Garay jauregia, hain zuzen, kalea gurutzatzerakoan atzean utzi berri duguna. 1895ean eraiki zen, garai bateko eltze-denda baten orubean, eta eredu neobarroko frantziarrendandik hartu zuen inspirazioa. Bere arbelezko teilatuagatik, mantsarda ugari izateagatik eta kupula erraboldunean errematatutako dorre angeluarragatik nabarmentzen da. Ezkerretara, jauregi horren ondoan, badago garai bereko arkitekturaren beste adibide bat, baina hori harlanduez estalitako material urriez eginda dago eta bere aurrealde nagusian apaingarri ugari dago. Hartan Gerra Zibilaren bonbardaketako metrailaren arrastoak ikus ditzakegu oraindik.

Durangora 1937ko martxoaren 31n iritsi ziren hegazkinek egin zituzten uxaldien ibilbidearekin bat dator ibili dugun bidea. Goizeko 8:30ean, zeruertzean bost bonbaketariren eta bederatzi ehiza-hegazkinen taldea agertu zen. Erasoa auzo horren gainean hasi zen, eguzkia hegazkinen atzean zegoela, tren-geltokirako norabideaz. Kurutziagako gurutzeari kalte egin zioten. Andra Mariaren elizan zibil ugari hil ziren, beren parrokoaren ondoan, jesulagunen elizan bezala. Defentsa antiaereorik egon ez zenez, erraz bonbardatu eta metrailatu zuten. Bonbardaketak apirilaren 2an eta 4an errepikatu ziren. 400 hildako inguru egon ziren, 234 eraikin hondatu zituzten eta horien artean 71, guztiz suntsituta geratu ziren.

Hurrengo tokirantz aurrera egin ahala, gertaera haren arrasto berriak ikusiko ditugu bi etxebizitza neoklasiko ederretako aurrealdeetan, hain zuzen ere, kalearen 26. eta 28. zenbakietan. Lehena famili biko etxebizitza da, bestea baino altuagoa; bestea, berriz, familia bakarrekoa da.

10. GERALEKUA (KALEBARRIAREN HASIERA)

Kalebarriaren hasieran jarriko gara. Hortik metro gutxitara, ezkerretara, liburutegia dago. Eraikin neoklasiko eta soila da. Martín Echaburuk trazatu

zuen, 1826an, mutilen eskola izateko. Lau urte geroago, neskak ere hartzeko moldatu zen. Ordura arte, eskola udaletxean bertan zegoen.

Kale honen lehen lekukotasunak XV. mendekoak dira eta beti uste izan da, "barria" izenean oinarritua, hiribilduko zabalgunea izan zela, bigarren harresi batek bildutakoa. Hala ere, arkeologoek jatorrizkotzat hartutako beste hiru kaleenen aurreko materialak aurkitu dituzte bertan. Hiribilduko sorreraren aurreko durangarrak bertan kokatu al ziren? Kalebarria jatorrizko bilbean sartuta al zegoen? Horrela bada... hari zergatik eman zitzaion "barria" izena? Zinez ez da aurkitu beste kaleetatik banantzeko harresi-hondarrik eta bai, ordea, gure ibilaldiaren ezkerreko aldetik ixten zuen hormatzar exentua, hau da, beste ezeri atxikita ez dagoena.

Baina has gaitezen ibiltzen, kale horren izaera aurkitzeko. Artisau-tradizio luzeko tokia da. 6. zenbakian, indusketa arkeologikoek, oihalak edo larruak tindatzen ziren XII. mendeko lantegi baten hondarrak ezagutzera eman dituzte. Burdinaren eraldaketarekin loturiko jarduerak ere egiten ziren han. Biltegi, teilape, ortu, eta ukuilu ugari omen zegoen. Hurbileko errekek eta ubideek eragindako maizko uholdea, kale hori lan egiteko baino bizi izateko egokiagotzat har zedila arrazoi erantsia izan zen.

14. zenbakian, liburutegiaren aurrean, etxerik zaharrena dago. XVII. mendekoa da eta bere burdineriek, geroxeagokoek, kale horietan elkarrekin bizi ziren eta kofradietan elkartzten ziren artisau haien lana gogora dakarkigute. Beren ordenantzen bitartez, lana, aisia eta bere kideen heriotza zuzentzen zituzten. Oihal-egileen eta kardarien kofradia ezaguna da: San Sebastiani gomendatzen ziren, kofradia 1496koa da. Duela ez hainbeste urte arte, artile-langileei "durangier" hitz misterioitsuaz deitzen zieten Iparraldean. Baina, Durangon errementarien, labanagileen, mando-zaintzaileen eta zilarginen gremioak ere egon ziren.

Lehen industrializazioa iritsi zenean, lantegi txikiak ireki ziren Kalebarrian. 50eko eta 60ko hamarkadetan, metal-arotzeriak, makina- edo pieza-tailerrak eta autoak garbitu eta koipeztatze tailerrak ugaritu ziren.

Aurrera egiten jarraituko dugu eta, ezkerretara, Zeharkaleko kantoia ikusiko dugu, zeinen irteeran Errukiaren ataria zegoen. Eskuinetara zabaltzen den beste kantoi batekiko bidegurutzera iritsiko gara.

11. GERALEKUA (BALBINO GARITAONAINDIA PLAZA)

Aurrez aurre plaza txikia dugu eta horren ezkerrera, Tabirako tenpluranzko errepidea. Kantoiaeren atzealdean, Arribi jauregiko XVI. mendeko Errenazimentuko portale bikaina dago. Aurrez aurre, hirigintza irregularragoa, eta jairako toki batez hitz egiten digun monumentua. Zein motatako lekuan gaude?.

Inguruetan San Martin del Nogaleko ataria egon zela gehitzen badugu, errebal bat dela, hain zuzen ere, Intxaurrendokoa, ulertuko dugu: XVI. mendean Durangora sartzeko atarietako baten inguruan eratutako hiri inguruko espazioa.

Hemen, Tabiraranzko bideak, beste bide batzuek baino merkataritza-garrantzi txikiagoa izan zuen, eraikuntzen tipologiak, klase herritarren eta San Martin kofradiako artisauen kokagunea izan zen. Guzti hau, atariak bere izena kofradia hartatik hartu zuela pentsarazten digute.

Errepara diezaiozun, orain, eskulturari: "Zezenak dira" da. Hiribilduko jaien artean gehien sustraituta dagoen tradizioenetako bat "San Faustoak" dira, urriaren 13an ospatzen direnak. Zezen bat askatzen da Alde Zaharreko kaleetatik, lepoari lotuta soka bat duela, Santa Ana plazaraino eramateko. Tradizioak 400 urte baino gehiago ditu.

Plazatzoko iturritarantz aurrera egingo dugu eta, eskuinetara, Lejarza jauregiko beiraz hornitutako begiratokiak deigarri gertatuko zaizkigu. Etxabea, XVII. mendeko zutabe klasizistak dituen, arkupedun espazio ederra izan zen, eta geroago harresi baxu batek eta XIX. mendeko gelek zati batean itxi zuten.

Eskeko ordenek harresiz kanpoko hori bezalako tokiak bere komentuak eraikitzeke aukeratu zituzten. Ulertzen da, beraz, errebal hori Kurutzia-koarekin hiribilduaren kanpotik lotzen duen kalea "komentuetako kalea" edo "Komentukale" bezala ezagutzea. Jauregiaren aurrean duguna San Frantziskoren emakumezkoen komentua da. Hiribilduko zaharrena da, 1439. urte inguruan sortu baitzen. Portalea eta elizako dorretxoa, XIX. mendearen amaieran Martín Guridik eta Garamendik eraikitakoak, Bizkaiko errebibalismo neoerromanikoaren adibide interesgarriak dira. Aldameneko eraikin neoklasikoa lehenagokoa da eta komentuaren zati da, 1898ko bikarioren etxe ederra bezala, zeinak txalet bat gogora dakarkigun eta beste muturretik lorategia ixten duen. Norabide berean goazela, hurrengo eraikina San Antonio ikastetxea da. Klaratarrek sortu zuten XIX. mendearen erdialdean, eta

geroago, Santa Susana monasterioko serorek sortutako Santa Rita ikastetxearekin lotu zen. Azken hori Komentukaleko beste monasterioetako bat da.

12. GERALEKUA – PINONDO ETA SANTA ANAKO ARKUA

Mañaria ibaiaren ertzetik paseo eder eta bitxia eman ondoren, garai bateko harresiaren alboaren mugaren ertzetik gabiltzala, hain zuzen ere, egungo elizaren albotik, berriro iritsiko gara Santa Ana plazara.

Aurrean Santa Ana Arkua nabarmen ageri zaigu, garai bateko harresi-barrua gogora dakarkigun altxaeran dagoen arrasto bakarra, eta 1744ko lana bada ere, ez du bere jatorrizko kokalekua.

Garaipen-arku modukoa da, bi zutabe zilindrikoen artean dago eta pinakulu apaingarri batzuek eta jaietarako balkoi “begiratoki” batek errematatzen dute. Alde honetara lehenagoko eraikuntzatik jasotako elementu bakarra dago: Karlos V.aren armarri inperiala, buru biko arranoa duena eta 1566koa dena. Ama Birjina Jesus Haurtxoarekin irudia gordetzeko horma-hobi bat dago atzealdean.

Arkua zeharkatzen badugu, plaza azalduko zaigu. Erdi Arokoa da eta XVIII. mendean goitik behera birmoldatu zen.

Jada dakigunez, ibai-ibilgua desbideratu zenean, toki bat ireki zen eta XV. mendean toki horretan garai bateko Santa Ana eliza eraiki zen. Hiribilduko aitoren seme-alaba batzuek beren hilobiak jarri zituzten bertan. Eliza hori, mendebaldetik itxitura bezala balio zitzaion harresian sostengatzen zen, eta, haren ondoan, Merkatuko ataria omen zegoen. Ate horri izen hori eman zitzaion sarrera nagusiaren aurrean, segur aski Artekalearrantz irekita, tradizioz azoka egiten zen Erdi Aroko plaza zegoelako.

Hala ere, jatorrizko eraikinak beti izan zituen arazoak eta, 1720. eta 1734. urte bitartean, gaurko elizaren lanak egin ziren, zeinetarako zaharreko harlanduak erabili ziren. Lan arkeologikoek eliza berria eraikitzeko kanpaiak galdatu ziren labeak ere aurkitu dituzte, hain zuzen ere, garai bateko eliza handientsua zegoen orubean hondeatu ondoren.

Lehenagokoaren orientazioari eutsiz, eliza berria atzeraeman zuten, hau da, bere kanpoko lerrotik atzera sartu zen, eta plaza askoz zabalago geratu zen.

Hartan garaiaren gustuko jauregiak agertu ziren, hala nola, Lejarza Dorrea, eta bertan bazeudenen beste batzuen aurrealdeetako balkoiak toki berri horretara ireki ziren, esaterako, Arribi jauregia, zeinean eguzki-erlojua nabarmentzen den. Litekeena da prozesu horretan harresi-atala eta Santa Anako atari zaharra ere desagertzea.

Ibaian ikusten dugun presak hiribilduko errotetako beste bati, Santa Mariarena zenari, ematen zion ura. Errota horren ubidea bizirik atera zen plazan gertatu zen aldaketa hartatik, eta oraindik dago galtzadarri-zoladuraren azpian, XV. mendean, Lariz Dorrearen ondoan zegoen errotara ura eramateko, elizaren azpitik igarotzen zen bezala.

Ibaiaren gainean ikusten dugun hiribilduaren harrizko armarrria, soberako uraren gainezkabidea da.

Zalantzarik gabe, Santa Ana Plaza Durangoren bihotza da. Hartan, esparru bikain gisa, hiru egunetan zehar, “Nekealdi Bizidunak” bizia hartzen du eta durangarrek Aste Santuro gogo biziz antzezten dute.

13. GERALEKUA – (PINONDO 2)

Pinondoko errebalean gaude, Durangoko inguru ederrenetako batean, Mañaria ibaiaren ondoan. Toki horretara errege-bidea iristen zen, zeinetik Gaztelako, artile eta zereal preziatuak sartzen ziren. Zer dela eta, “Pinondo” izena? Erdi Aroko dokumentu batzuek pinu bat aipatzen dute, zeinaren azpian justizia ematen zen. Ohitura baino, Bizkaiko paisaia ohiko ez zen zuhaitz bati buruzko aipamena da bitxia.

Erdi Aroaren zatiren bat aurkituko dugu bertan, hala nola, ibaiaren beste aldera dagoen eta oso aldatuta dagoen Santanoste delako eraikinaren leiho gotiko-errenazentistak.

Eta ezkerretara, plazaren barnealdeari hurbiltzen gatzaiola, elementurik zaharrena aurkituko dugu: XVI. mendearen bukaerako gurutzadura. Zutabearen gainean, Jesus Gurutzean eta Pietatea irudiak.

Gainontzean, ingurune horretako kutsu aristokratikodun eraikinak, Durangoko lantegiak sortu zuten aberastasunaz ari zaizkigu, baita bertako burgesiak leku zabal eta eguzkitsuak aukeratu zituela ere.

XIX. mendean, inguru hori gaurko plaza triangeluarraz eta Ezkurdikoaren berdin-berdina den iturriaz goratu zen.

Juan Antonio de Egurennek diseinatu zituen biak, 1864an.

Bizkaiko oroitzapenezko lehen monumentua izan zena plazaren buru da: Pablo Pedro Astarloa euskal filologoari eskaini zitzaion, eta Bernabé Garamendik eta Serafin de Basterrak egin zuten.

Valentín de Zubiaurre musikaria bertan zegoela inauguratu zen, Ezkurdi plazan, 1886ko lehenengo "Euskal Jaiak" zirela eta, eta geroago, han kokatu zen.

Handik metro gutxitara, 160 urte inguruko sukoia motzondo handia dago, 1992an moztu zena. Inguruari izena eman zion pinuaren oroipenean landatu zen. Gaur egun, haren protagonismoa, zubitik hurbil, ginkgo biloba espezieko zuhaitz batek hartu omen du.

Zubitik oso gertu, 1855eko Pinondoko jauregi neoklasiko ederra nabarmentzen da, etxebizitza inoiz izan ez zena. Bao-jokoa soila eta orekaduna da. Beste kantoian, Astarloa Jauregia dago. XVIII. mendekoa da eta filologo haren etxea izan zen. Erdi-puntuko arkudun sarbide zabala dauka, baita 1773ko armarria ere. Errepidearen beste aldera, 5. zenbakidun etxea, Etxezuria, estilo eklektikokoa, XX. mendearen hasierakoa da.

Haren ondoan, Durangorako irteerarantz, Orue etxea, klasizista eta XVII. mendekoa, On Karlos erregearen gorte eta kuartel nagusia izan zen lehenengo karlistaldian eta agertoki nabarmena, bigarreanean.

Tabirako San Pedro elizan bukatuko da gure ibilaldia, orain gauden tokitik zortzi edo hamar minututara. Ibilbidean, eskuinetara, "Gran Hotel Durango" ikusiko dugu, Ignacio M^a Smith arkitektoaren 1919ko jauregitxoa. Estilo erregionalista du, baita cottage ingelesaren kutsua ere.

14. GERALEKUA - TABIRAKO SAN PEDRO

Gure bidearen amaierara iritsiko gara. Bitxia da, gure azken geldialdia elezaharrak eta tradizioak beti Durangoren jatorria jarri duten tokian izatea.

Hala ere, gaur egun badakigu hori ez zela horrela izan. Itzal eta berdetasuneko leku zoragarri horretan, aspaldiko eraikuntzek, Tabirako San Pedrok eta Erdi Aroko elizak eta Arrosarioko ermitak, eskulturekin eta arte garaikidearekin elkarrikituak orekatsua dute.

Tabirako San Pedro eraikina Euskal Herriko zaharrenetakotzat jota dago, eta haren elementu batzuek, esaterako, bao berrerabili eta zaharkituek, interpretazio okerrera eraman gaitzakete. Gotiko Berantiarreko eraikina da, hain zuzen ere, Bizkaian ugari erabili izan zen estilokoa. Nabe angeluzuzen handia eta burualde zuzena ditu. XVI. mendeko eraikuntza da eta XII. mendeko beste eraikin baten jatorrizko kokalekuaren gainean eraiki zen.

Eliza hori, zalantzarik gabe, benetako museoa da, eta bertara sartzeko gonbit egiten dizuegu. Barrualdean, elizaren oinaldean dagoen kortxil bikaina aipatu behar dugu. Bi sareta-solairuek nolabaiteko kutsu mudejarra ematen diote. XV. mendearen hasierakoa omen da. Altxarrei dagokienez, erretaula nagusia aipatu beharra dago, gaur Arrosarioko Ermita den santutxo zaharretik datorrena, lurralde horietako berezko manierismoaren lan bikaina.

Burualdeko XIV. mendeko Andra Mariaren tailua eta Kristoren irudi gotikoaren tailua nabarmentzen dira. Bosgarren Angustiaren triptikoa, zur polikromatuzkoa, eta San Joakin eta Santa Ana Besarkadaren erliebea, erromanista, garai errenazentistakoak dira.

Tenpluaren oinaldean, kanpoaldean, bainuontzi moduko Erdi Aroko bi sarkofago ikus ditzakegu. Elezahar baten arabera, sarkofago haietan Durangoko Konde-kondesak, Ancho Estegiz eta Toda Andrea daude hobiratuta -gizona Padurako gerra ospetsuan hil zen-, baina ikerketa berri batzuek hipotesi hori ezeztatu dute.

XVIII. mendeaz geroztik, bi eraikuntza horiek, San Pedro eta Arrosarioko Ermita, elkarrekin bizi izan dira. Bigarrena joera manieristaren aitzindaria da Bizkaian. Eliza baino bolumen txikiagokoa, ermitak luzetarako nabea du, altueran nabarmentzen den abside karratua duena. Bi tenpluen arteko komunikazioa bao gotiko eder eta original baten bitartez egiten da.

Baina errepara diezaiozun gure inguruneari eta modernotasun-espazioa ere dela ikusiko dugu. Pasieran gabiltzala, hainbat eskultura ikusiko dugu, hala nola, Nestor Basterretxearen "Hirugarren Hilarria" harrizko estela. Disko-formako modeloa da, zeinean egileak bere jatorri antropomorfoa eraldatzen duen, hura adierazpen abstraktua bihurtzeko. Bere edukia emoziozkoa eta



sentipenezkoa da, eta kanpoaldeak garbitasun geometriko handia du. Lehenaren eta orainaren arteko iraupena eskaintzen du.

Eta gure ibilbidean zehar gertatu den bezala, ibaia bidaide dugu, hiribilduan bertan beti, ozen eta bare, herriko kaleen eta parkeen artean jostalari, gure ibilaldiaren lekuko eta kontatu dizkizuegun istorioen lekuko.

Eskerrik asko.

IBILBIDE HORI, LA CAIXAKO GIZARTE EKINTZAREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO TURISMO ZUZENDARITZAREN ETA DURANGOKO UDALAREN LAGUNTZARI ESKER EGIN DA.



2 IBILBIDEA

AZTARNAK,

DURANGOKO BONBARDAKETA

1 GERALEKUA (TURISMO BULEGOAREN ONDOAN)

Kaixo / Ongietorri

“Aztarnak” izeneko bisita autogidatua egitera gonbidatzen zaitugu.

1937ko martxoaren 31ko bonbardaketak Durango hirian utzitako aztarnak ikusteko eta egun zoritxarreko gertaerak ezagutzeko aukera izango dugu.

Espainiako Gerra zibila 1936ko uztailaren 18an izan zen estatu kolpearekin hasi zen, ejerzitoaren zati bat bigarren errepublikako gobernuaren kontra altxatu zenean.

Gerra 1939ko apirilaren 1ean amaitu zen eta diktadura ezarri zen. Diktadura hau Francisco Franco jenerala 1975. urtean hil zen arte iraun zuen.

Durungaldea izan zen gerraren ondorioak bortitzen jasan zituen Bizkaiko eskualdea.

Araba altxamenduaren alde agertu zen eta Gipuzkoa Mola jeneralak hartu zuen 1936ko abuztua eta iraila bitartean. Horrek Durungaldearen mugetan jarri zuen gerrako frontea.

Hurrengo hilabeteetan Bizkaiko frontean izandako erasoaldiek gertaera tristeak ekarri zituen; Saibigaineko eta Intxortako borrokaldiak, edota Durangoko bonbardaketa.

1937ko martxoaren 31n, goizeko 8:30ean, bost bonbaketarik eta bederatzi ehiza-hegazkinen Durangoren kontrako aire eraso hasi zuten Kurutziaga kale honetan.

Lehenengo bonbak gaur egungo Kurutzesantu museoaren aurrean jausi ziren. Hortxe dago Kurutziagako kurutzea ikusgai.

Alarmak lehentxoago jo zuen, baina jendeak ez zuen egokitutako babeslekuetara joateko denborarik izan.

Defentsa antiaereo gabe, inolako zigorrik jaso gabe bonbardatu eta metrailatzea ekarri zuen.

Hemendik gertu eraikin ezberdinetako fatxadetan dauden metraila inpaktuak ikusi ditzakegu. Garay jauregiaren ondoan, Areitio jauregian, zulo txiki horiek erakusten dute metrailaren eragina.

Lehenengo bonbardaketa honetan SAVOIA 81 bonbardaketa astuneko 24. taldeko 214 eskoadrilako hegazkinek parte hartu zuten. Pipistrello gerra izena zuten hegazkinek, sagu-zahar esan nahi dute.

Hegazkinek Andar Maria elizako dorrea izan zuten erreferentzia, Ezkurdiko plazan eta tren geltokian amaitzeko. Diagonalean marraztu daitekeen lerro honek bat egiten zuen orduko Durango hiri barruko tarte luzeenarekin.

Hegazkinak behin pasatu ziren eta 50 kiloko 80 bonba jaurti zituzten.

Hurrengo puntura bidean 26 eta 28 zenbakidun eraikinen fatxadan aztarna gehiago ikusiko ditugu.

2. GERALEKUA (“Memoriarako espazioa” monumentuaren ondoan)

“Memoriarako espazioa” izena duen monumentuaren ondoan gaude.

Leku hau memoriaz eta oroitzapenez betetzeko leku modura sortu zen 2013. urtean. Horregatik sinbolikoki gehitutako elementuen garrantzia: liburu bat, argazki kamera bat eta hausnarketarako gonbitea luzatzen digun zabaldutako koadernoak.

Lurrean ikusi ditzakegun plakek eskualdeko gerra zibilaren iruditegian leku esanguratsuak aipatzen dituzte.

Horietako hiru Durangaldean izan ziren borrokaldi garrantzitsuei dagokie: Intxorta, Saibigain eta Santamañazar.



Deriok durangar batzuk fusilatu zituzten lekua gogoratzen du, eta Bartzelonak, Bizkaia menpean hartu eta gero han batu zirelako frontera berriro joan ziren durangar batzuk.

Jesuitak elizaren aurrean ere bagaude, 1937ko goiz haretan bonbardeatu zuten hiru eraikin erlijiosoetako bat, Santa Susanako komentua eta Uribarriko Andra Maria basilikarekin batera.

Jesuiten ikastetxean EAJ-PNVko Kirikiño batailoiko miliziarrek euren kuartela zuten. Horrek jomuga militar bilakatu zuen lekua.

Hala ere, 1937ko martxoaren 18an Euzkadiko Gobernuak emandako agindu bat tarteko gutxi ziren bonbardaketa egunean bertan ziren miliziarak. Zeregin administratiboa zen nagusi militarra baino.

Bonbardaketak ez zuen Jesuiten eskola-komentua harrapatu. Eliztarrez beteta zegoen eliza suntsitu zuen. 50 bat lagun hil ziren, tartean meza ematen zebilen jesuita.

Gertu dagoen Komentukalean kaleari izena ematen dioten, Santa Susana eta San Francisco komentuek daude. Bonbardaketa gertatu aurreko hileetan miliziar taldeen lekua ziren biak.

Santa Susana komentua lehen bonbardaketan kaltetuenetako bat izan zen. Lehenengo hegazkinak bazetozela ikusita, monjek komentu osteko soroan zegoen txabola baten bilatu zuten aterpea. Zoritxarreko, bonba bat gainean jauzi zen. 13 moja eta langile bat hil ziren.

3. GERALEKUA (ANDRA MARI BASILIKAREN ONDOAN)

Durango uriko lekuri esanguratsuenetako baten gaude orain, eta era berean, bonbek gehien kaltetu zuten lekua: Uribarriko Andra Maria basilikan.

Andra Mari bonbardaketako jomugetako bat izan zitekeen, izan ere egun batzuk lehanago intendentzia izan zelako.

Aste Santuarekin batera, martxoaren 25etik 28ra, elizan gordeta zegoen guztia orduko udal biltegia zen San Agustineran eramatea erabaki zuten

Bestetik, Merkatu plaza, basilikaren ostean, aparkaleku modura egokituta zegoen.





Irudikatu dezagun orain leku hau martxoaren 31 asteazken hartan. Elizkizunaz gain, egun horretan basilikako portikoan egin zen merkatua. Horregatik, eliza ez-ezik ingurua ere jendez beteta zegoen.

Gainontzeko irudikatzea da.

Hegazkinen zarata ikaragarria etorriko zenaren abisua baino ez zen izan: lau tona lehergailuk hildako ugari utzi zituen.

Elizpea eta eraikina, absidea eta koroa kenduta, suntsituta geratu ziren.

Eliza, gainontzeko eraikinen antzera, 32 hilabetetan berreraiki zuten, herritarren laguntza eta esfortzuarekin. 1939ko abenduaren 31n berriro inauguratu zuten.

8 zenbakidun etxebizitzan eta basilikaren hormetan bertan metrailak goiz tragiko hartan utzitako aztarnak ikusiko ditugu.

Kalebarria, Goienkalea, Artekalea edo Barrenkalea ere zauri hauen lekuko dira.

Kaltetutako eraikin gehienak bizitokiak ziren eta esfortzu handiarekin nahiko arin altxatu zituzten.

Harrizko hormak zituzten eraikinek hobeto eutsi zioten erasoari eta kasu horietan barrukoa egokituz egin zuten berreraikitzea.

Hondamendiaren irudia izateko, nahikoa da alde zaharreko gunen honetan 205 eraikin kaltetuta irudikatzea. Horietako %30 erabat suntsituta.

4. GERALEKUA (EZKURDI PLAZA)

Ezkurdi Plazan gaude orain, historian zehar durangarrek euren aisialdirako leku modura erabili izan dutelako ezaguna.

Denboran atzera eginda, ez da zaila irudikatzea bulebarrean kafetegiak, tabernak, hotelak, zinema, kioskoa, iturria, frontoia... Hemen egiten ziren mitin politikoak edota sindikalak, folklore jaialdiak, pilota partiduak zein abar luzea.

Puntu honetan gerra hasierara bueltatuko gara. Durangaldearen atarian frontea ezarri zuteneko hasierako hilabeteetara.

Izan ere, 1936ko irailaren 36an, Durangok lehen bonbardaketa bat jasan zuen.





Gasteiztik etorritako hegazkinek 4 bonba jaurti zituzten.

Bat plazan jausi zen Gipuzkoatik ihes egindako errefuxiatu eta miliziar talde bat pilotan jokatzen zebilela. Bonbak 12 hildako eta hainbat zauritu utzi zituen.

Bonbardaketaren ostean, haserretuta, miliziar batzuk Ermodo kartzelara joan ziren, Ezkurdi Plazatik gertu. Ustez erreketeen aldekoak ziren 22 preso atera zituzten kartzelatik eta kanposantura eraman zituzten. Guztiak fusilatu zituzten, aurre epaiketa barik.

Gertaera honek Durango erdibitu egin zuen. Ordutik aurrera, Errepublikaren aldekoen eta gehiengoa ziren tradizionalisten arteko enfrentamendu saialdiak sarri izan ziren.

Aterpeen atariko horman plaka bat dago eta antzinako frontoiaren ezker paretako azkena gogorarazten du. Horma honetan ere metraila aztarnak ikusi ditzakegu.

5. GERALEKUA (ARTE ETA HISTORIA MUSEOAREN AURREAN)

Puntu honetan gerraren eragin eta ondorioz hitz egitea egokitzen zaigu; besteak beste, kale-ospitaleez.

Gerra zibilean kale-ospitalea kokatu zen lekuan gaude: Etxezarreta Jauregia.

Bonbardaketaren ostean, gerrako fronteetan zauritu ziren miliziarrek hartzeko erabili zen.

Gaur egun Durangoko Arte eta Historia Museoa da.

Museoko historia aretoan, gerra sasoiko elementu ezberdinak ikusi ditzakegu, horien artean nabarmen: bonbardaketan erabili izan ziren hegazkin italiarren erreproduzio bat, baioneta bat eta koadro pareia. Horietako baten Karlistak Durangora sartu zirenekoa irudikatzen da eta bertan, Andra Maria bonbengatik suntsituta ikus daiteke.

Zure eskumatara, gaur egungo San Agustin Kultur Gunea antzokia, arinago aipatu dugun bezala biltegia izan zena.

Eta horren ondoan, Erruki etxea edota ospitale izan zena. Hemen ere bonbardaketaren zaurituak artatzen zituzten.



Baina bueltatu gaitezen martxoaren 31ra.

Goizeko lehen orduan Savoia italiarrek lehen zeharkaldia egin eta gero, 11:00etan, hegaldi berria egon zen behaketa edota azterketarako.

Arratsaldeko 5:30etan, goizeko bonbardaketatik sorospen eta erreskate lanak abian zeudela, eraso berria izan zen.

Zubitik Alde Zaharrera begiratzen badugu, urrinean, Zeharkalea jarraituz, kanposanturako igoera ikusi dezakegu.

Hegazkin bonbaketariak goizean apenas kaltetu zen diagonal erabili zuten oraingoan. Lerroa kanposantutik ospitaleen guneraino doa.

Arratsaldeko eraso hauetan uriko udaletxea eta ondoko eraikinak izan ziren kaltetuenak. Hain zuzen ere, udaletxe aurreko eta alboko tarteak bonbardaketak utzitako kalteen ondorioa dira.

Irudikatu dezakegu, kanposanturako kale eta bideak jendez beteta zeudela, biktimak identifikatzen edota euren familiakoak lurperatzen joan zirelako.

100 kiloko 22 bonba eta 50 kiloko 54 jaurti zituzten hegazkinek.

Ehiza-hegazkinek, berriz, bonba su-eragileak jaurti zituzten eta herritarrak metrailatu zituzten.

Neurri gabeko erasoak izan zen. Arratsalde hartako beldurra eta terrora Montorreta, Landako, San Roke... landetatik zabaldu zen. Eta hau ez zen izan azken bonbardaketa.

Apirilaren 2an eta 4ean, medikuak, su-hiltzaileak eta sorospen zein hondakinak jasotzeko lanetan zebiltzanak bakarrik zeuden hirian. Erasotutakoak izan ziren, baina aurrekoetan baino biktima gutxiago egon zen.

Apirilaren 2ko erasoan Erruki Etxea bonbardatu zuten, gurutze gorriko bandera jarrita zegoela. Ez zuten errespetatu. Sei moja eta zerbitzuko beste hiru pertsona zauritu zituzten.

Bost egun horietako balantzea Durangon tragikoa izan zen: 281 bonba, 14.840 kilo leherkari eta 336 zibilien heriotza.

6. GERALEKUA (NEVERS-EN ATE ZAHARREAN)



Gerraren beste ondorioetako bat kartzelak izan ziren, gizonezkoenak zein emakumezkoenak.

Leku honetan, gaur egun eskola bateko jolastokia dena, Villa Maria bezala ezaguna zen eraikina zegoen. Jesusen bihotz sakratuaren eskola frantsesa izan zen.

Ziurrenik XX. Mende hasierako eraikin handia zen.

Oraindik sarrerako atea gordetzen da.

Durango hartu eta gero, apirilaren 28an, langileen batailoiko 14. taldea hemen zegoen. Hondakinak jasotzeko ardura zuten presoak ziren.

Gerra amaituta, Durangoko emakumeen kartzela izan zen, orduko Euskadiko garrantzitsuenetako bat Saturraran, Amorebieta edota Bilboko Santutxu auzoko Orue txaletean izan zenarekin batera.

Ordurako bertan bizi izan ziren mojak joanak ziren eta 1942. urtera arte ez ziren berriro itzuliko.

Dauden datuen arabera, urtebetez izan zituen ateak zabalik emakume kartzela honek.

Beste kartzeletan bezala, bizi baldintzak ez ziren egokienak. Hainbat preso politiko hona ekarri zituzten eta oso egoera larrian bizi ziren.

Gatibu-lanak egitera derrigortzen zituzten, ur murrizketak zituzten, osasun eta garbitasun egoera penagarrietan bizi ziren, errejimenaren ereserkiak kantatzera derrigortzen zituzten...

Baldintza hauetan, ia hamabi hilabetetan bost emakume eta sei ume hil ziren.

Kartzelan 2000 emakume ere egon ziren, preso politikoak eta sozialak (prostitutak, abortuaren aldekoak, lege-haustek egindakoak...)

Kartzela honen bereizgarrietako bat presoen antolamendu autonomia izan zen. "Familia" deitutako unitateetan elkartzen ziren 3 presoz osatutakoa: preso gaztea, adinekoa eta Durango ingurukoa.

Ahozko lekukotzen arabera, presoz betetako trenak, batzuetan umeekin zetozenak, Durangoko herritarren artean egonezina sortu zuen.





Bisita orain amaitzen dugu, baina 1937an Durangoko uriak jasan zuen zoritxarreko gertaera hau oroitzapenean geratuko zaigu.

Ibilbide hau Durangoko Udala eta Gerediaga Elkartearen elkarlanari esker egin da.

Turismo Durango

Kurutziaga, 38

HELBIDE BERRIAN GAUDE · NUEVA DIRECCIÓN

www.turismodurango.net

turismo@durango.eus

T 946 033 938

